

# **BiZKAItARRAi- BiZKAiERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

330n. zenbakia

2007 iraila

# **2007**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**LAGUNTZAILLE**

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

## 2007-2008 IKASTURTEA

### BIZKAIERA 40. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 135 €

**Izena emoteko tokia:** EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

**Asierea:** URRILLAREN 8'AN

### 40.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 135 €

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

**Comienzo:** 8 DE OCTUBRE

#### EUSKAL ASTEA

2007-11-19: **Legarreta'tar Asier'ek:** *Guda-aurreko bertso gintza*

2007-11-20: **Olazar'tar Martin'ek:** *Euskal abizenak*

2007-11-21: **Atutxa'tar Paul'ek:** *Euskalerrriaren askatasuna (1)*

2007-11-22: **Andrinua'tar Martzel'ek:** *Euskerea nire bizitzan*

2007-11-23: **Atutxa'tar Paul'ek:** *Euskalerrriaren askatasuna (2)*

Euskerazaleak



**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

#### IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:  
– Ipuñiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2º eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan.

– Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro                      4.ª 120,20 euro

2.ª 240,40 euro                      5.ª 60,10 euro

3.ª 180,30 euro

– Ipuñiak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

– Epea zemendiaren 30'e an amaituko da, eta aurten ez da luzatuko.

EUSKERAZALEAK

## 7.- EGAZTIEN FAMILIA (II)

### KALAOAK

Txori au aundia eta piku aundiduna da. Enbor aundi baten zulo aundi bat aurkitzen dau eta emea sartzen da ara. Arrak kanpotik zulua zarratu egiten dau lupetzez edo zulo txiki bat itzi ameari jaten emoteko umeak atera artean eta gero umeai be bai. Umeak egaz egiteko gai diranean, lupetzezko estalki ori kentzen jako.

### KUKUAK

Errez ezagutzen da “kuku” kantutik udabarrian, baiña ikustea ez da erreza.

Emeak beti txorien abiak billatzen dauz, txepetak naiz txamillotxak egindakoak, eta euren arrautzen artean berea be ipinten dau. Orretarako antzeko arrautzak billatzen alegintzen da.

Amalau eguneko beroaldiaren ondoren urteten dau kukutxuak, besteak baiño lentxuago. Kukutxuak bota egiten dauz abitik beste arrautzak eta bakarrik gelditzen da. Guarso barriak emoten dautsoe, besteentzat ustez, dakarren janaria eta bakarrik urtengo dau bere benetako gurasoak iñoz be ezagutu barik.

### PINGUINOAK

Antartikoan otz aundia dago eta beti edurra. Bizi ete leiteke an egaztirik? Bai izotz-muiño baten barrenean errez aurkituko dozu egazti-taldea, pinguinoak dira: Burua ori-baltza, aundiak... Ez dabe egazik egiten, euren egoak txikiak diralako eta eurak ain aundiak.



Leku epelagoetan be bizi dira, eundakako taldeetan. Jateko arrain-billa ibiltzen dira tikili-takala.

Neguaeren asieran egiten dabez arrautzak, bana, eta oingaiñetan eroaten dabez, sabelagaz berotzen dabezela. Orretan alkarrari lagundu be egiten dautsoe.

Neguan jaioten dira txitak, benetan politik, gero sea-ka baten zaintzen dabez euretariko batzuk.

### EGALPERRA (ABESTRUZA)

Ganbelu egazti biurtua ei da. Leku legorretan bizi da, ego laburrak dauz, beatzak bi baiño ez.

Auxe esan izan da: Arerioa datorrenean burua arepean sartzen dauala, ikusten ez dana izan be ez dala uste izanez.

Arrautzak lurreko sakan baten izten dauz, askorenak batera, 30 arrautza. Arrak ateraten dauz umeak baiña beroaldian (eguerdian) arrautzak bakarrik izten dauz arez estalduta, txakalak jan ez dagiezan. Gaiñera ertzetako arrautzak uste-lak izaten dira... Sei aste igaro ondoren urteten dabe umeak bakoitxa kilo batekoak.

Arerioa datorrenean iges egiten dau umeak.

**Olazar'tar  
Martin'ek**

## \*EZAN ADITZ HIPOTETIKOAREN NONDIK NORAKOAK (II)

Azkanengo lantxoari jarraituz, esan dagigun *\*ezan* transitiboa ez dala ifoiz be erabili indikatiboko oraiñaldian, ez dalako bere betebearra, orretarako *\*edun* daukagulako. Iraganean erabili dabe idazle batzuk grekoen “aoristoa” lortzeko. Alderantziz, *\*edun* transitiboa ez da subjuntiboan sartzen kasu arraroak izan ezik. Bardin gertatzen da *izan* intransitiboagaz. Naiz eta denpora zarretako lekuko batzuk euki, ez da subjuntiboan erabiltzen eta, orren truke, *\*edin* intransitiboa ez da indikatiboko oraiñaldian asaltzen.

*Izan* intransitiboa indikatiboan bakarrik erabiltzen da ta subjuntiboa beregandik atara bear zan amaierako *-n* bat geituz. Orrela asi zan baiña singularreko adizkiak *\*edin*-en forma artu eben, *da-i-n* > *da-d-i-n* egiñez, eta plurallean *-tza-* erroa *-te-* biurtu zan, *ga-it-tza-n* > *ga-it-e-n* egiñez. Forma orreek orrelaxe ibili ziran denpora luzean, izenik barik, Van Eys-ek ipiñi arte. Subjuntiborako da *\*edin* eta indikatiborako *izan*. Susmo galanta biak aditz bakarra izateko. Bestalde, transitiboak, *izan* eta *\*edun*, bion arte sortutako formak, *izan*-en *-iza-*, erro singularra, eta *-itza-* erro plurala gei *-u-* erro transitiboagaz osaturik, indikatiborako bakarrik gelditu ziran. Eurengandik atara bear ziran subjuntiboko adizkiak *-n* bat geituz beste aditz guztietan gertatzen dan legez, baiña forma berri oneek, zeozelan, *\*ezan*-en itxura okerra artu eben *-u-* erroa galdu ebelako geienetan eta euren betebearra subjuntiborako gelditu zan bakarrik. Oneek biok be sekulako itxura dauke aditz bakarra izateko, transitiboan, *izan* konjugatua + *-u-* *\*edun*-en erroagaz osaturik.

Orrela ba, indikatiboko *ga-it-tza + u + zu* > *ga-it -u-zu*, *za-it-tza + u + gu* > *za-it -u-gu*, *d-it-tza + u + gu* > *d-it -u-gu* billakatu aurretik sortu zan subjuntiboa, au da : *ga-it-tza-u-zu + n*, *za-it-tza-u-gu + n*, *d-it-tza-u-gu + n*, eta geroago, *-u-* erroa galdurik gaurko *ga-it-tza-zu-n*, *za-it-tza-gu-n*, *d-it-tza-gu-n* egin ziran. Subjuntiboko oneek sortu izan balitzaz indikatiboko adizkiak gaurko *ga-it-u-zu*, etab. legezkoak izatera eldu ezkerro, *ga-it-u-zu + n*, etab. izango ziran gaurko subjuntibokoak. Orretaz, *izan* eta *\*ezan* aditz bakarra da.

Argudio geiago. Lardizabal jaunak aurkitu zituzten Naparroako erri batzutan, Franziaiko mugan, adizki bitxi batzuk oso osorik dagozanak, Nor-Nork diranean : inperatiboan, *na-za-u-zu*, *na-za-u-zu-te*, *izan*-en *-za-* ta *\*edun*-en *-u-* erroagaz. Asierako *na-za...* ori *izan*-en *na-i-za* adizki konjugatutik dator. Batabestea probatzen dabe alkarrerri lagunduz. Baita be, ipintzen dau jaun onek, *be-na-u-za* ta *be-na-za-u-te*. Oneek biok, ziurrenik, *be-na-za-u* ta *be-na-za-u-te* adizki zarragoen metatesiak dira. Edozelan be, asierako *be-* ori txarto erabillia da or. Subjuntiboko oraiñaldian ipinten dituzanak oneek dira : *na-u-za-zu-n*, *na-u-za-zu-te-n*, *na-u-za-n*, *na-u-za-te-n*. Begi bistan dago *-u-* ta *-za-* erroak euren tokiak trukatu

egin dituezela, Nor-Nork izanik. Subjuntiboko iraganaldian forma onek ipintzen ditu : *nin-za-u-zu-n* eta *nin-za-u-zu-te-n*, *nin-za-n* eta *nin-za-te-n* adizkien ondoan. Lenengoko biak garbi erakusten dabe euren *nin-za...* *izan*-en konjugatua ta *-u-* *\*edun*-en erroa dirala.

Beste alde batetik, BNor., au da, Benaparroako sortaldean, Bonapartek diñoenez, “errespetozko itanoa” asko erabiltzen da ta amengo adizki ugariak erakusten deuskue *izan* konjugatuaren zatiak *-(i)za-* edo *-(i)tza-* ta *\*edun*-en *-u-* erroa, onela : Intransitiboetan, indikatiboko oraiñaldian, Gip. *nauk* eta Biz. *nok* diranen kidea dan *nuzu* errespetozkoa darabilte amen, baiña Gip. *na-za-i-zu* ta Biz *na-ja-tzu* ‘yo soy a vos.’, BNor. *ni-tza-u-zu* ipintzen dau Bonapartek, errespetozko itanoaren *R* markatxoa alboan daroala, bere esangura literala ‘yo soy habido por vos’ izanik, au da, ‘yo soy a tí’ = ‘tú me tienes’ en traducción libre. Amen ez da gertatu *izan*-en nor-nori-ko *ni-tza-i-zu*-ren aldaketa bat baizik eta *\*edun*-en adizkiak, beti ikusten dogun lez, itanorako, *izan*-en adizkien tokia artzen dabela, *nauk*, *gaituk*, etab. lez. Orduan, *ni-tza-u-zu* ta *gi-tza-u-zu*, errespetozko itanoak, *izan*-en *-tza-* eta *\*edun*-en *-u-* gaz osoturik dagoz. Iraganaldian, *nin-tza-u-zu-n*, *zi-tza-u-tzu-n*, *gin-tza-u-tzu-n*, *zi-tza-u-zki-tzu-n*, datoz, euren *R* markeagaz.

Baldintzazkoetan : *nin-tza-u-ke-zu*, *li-tza-u-ke-zu*, *gin-tza-u-zke-tzu*, *li-tza-u-zke-tzu* ta bardintsuak iraganaldian, euren *R* marka ta guzti.

Aalezkoetan : *ni-tza-u-ke-zu*, *di-tza-u-ke-zu*, *gi-tza-u-zke-tzu*, *di-tza-u-zke-tzu*, *R*-gaz.

Subjuntiboko transitiboetan, nor-nori-nork formetan : *de-za-u-zu-a-n*, *de-za-u-zu-n*, *de-za-u-zu-u-n*, *de-za-u-zie-n*, singularrak, eta, *di-tza-u-tzu-a-n*, *di-tza-u-tzu-n*, *di-tza-u-tzu-u-n*, *di-tza-u-tzie-n*, pluralak baiña amen ez dator *R* markarik baiña amendik eratorri diran aalezkoak : *de-za-u-ke-zu-t*, *de-za-u-ke-zu*, *de-za-u-ke-zu-u*, *de-za-u-ke-zie*, *R* markagaz.

Bonapartek, indikatiboko *da-u-zki-tzu*-ren aldaketa lez (*di*)-*ta-u-tzu* ipini eban eta amendik atarako zan subjuntiboan ikusten dogun *di-tza-u-tzu-n*.

Argi ikusten da indikatiboko *\*edun*-en adizkiak eta subjuntiboko *\*ezan*-enak, jatorriz, aditz bakarra dirala, au da, *izan*-en zati konjugatua ta *-u-* erro transitiboa. *\*Edun*-en paradigmako ogeitamasei adizkietatik ogeitamabi *izan*-en bidez konjugaturik dagoz bere aztarnak begi bistan dagozelako ta lau forma bakarrik aktiboan : *nuen*, *nituen*, *genduen*, *genituen*, adizki berriak, *zuen* aktibora biurtu ezkerro sortutakoak analogiaren bidez. Oneen aurretik, nai ta nai ez, adizki zarragoak eta jatorragoak izango ziran : *\*zudan*, *\*zitudan*, *\*zugun*, *\*zitugun*, euren aztarnarik aurkitu ez arren.

# OLERKIAK

## SENTIMENDUAK

Sentimendurik gabe  
elkarren artean  
ezta beñere izango  
pakerik munduan  
elkar ezin ikusiz  
kezkak biotzean

Nik esperantza badut  
juanden aspaldian  
au mundatuko dela  
denantzako onean  
kontzientzia duenak  
bere animean  
asiko da pentsatzen  
gero azkenean

Pena ederrá artzen dut  
gauz ok pentsatzean  
gorroto aundia dago  
elkarren artean  
gaitz ori sendatzeko  
dena biotzean  
dena gelditu koda  
gure izatean

Aurrera juaten utzi  
gaztetasunaren  
berak ongi dakite  
ixtori orren berri  
denak pentsa dezagun  
direla nagusi  
denak errespeto bat  
jende gazteari.

## APIRILA

Ortotsa eta euriak mila  
belarra jaiotzen  
ardiak axuriak azten  
pazkoetako bazkaria  
axuri errea eta litxua zen  
mamia ere egitten zuten  
orain gauza oiei  
ez zaio balorerik ematen  
presaka bizi gara  
askok ez dute zukurik egosten  
eltzeak eta zartagiak  
oliorik gabe erretzen  
xalxak sukaldariak  
ari dira mendatzen  
baino leen baino obeki  
ez du inork jaten.

## MAIATZA

Urte guztian ederrena  
baratz eta soroak lorez beteta dena  
kukua asten da mututzen  
beste kabi batetan arraultza jartzen  
beste bi txori batek umetxoa  
omen dio azitzen.

Gure artean ere badire  
olako kukua  
besteren kabian ibili  
pekatua egin eta utzi  
bera delakoan  
beste aita batek umea azi  
kuku ori joan zein iesi  
olakoak aitak izaten  
ez dute merezi.

## KORRIKA 15

Doinua: Markosek egin eban

Lagun bat agurtzeko  
aukera polita  
bi urtez bein egiten  
baitigu bisita.  
Au da ezinegona  
ta au da irrika  
presta zaitezke denak  
badator Korrika.

Entzun iezaguzue  
gazte eta eldu  
izkuntzaren fruituak  
bear baitu eldu  
euskaldunok norabait  
nai badugu eldu  
lekukoa pasa ta  
euskerari eldu.

Batzuk pauso txikian  
beste batzuk arin  
metroz metro bagoaz  
etorri gurekin  
Orain korrika pixkat  
bear dugu egin  
Barañainen euskara  
oinez ibil dadin.

## ESKIAK

Eskiak jarri ditut  
ez dakit zer egin  
nik artzen badut min  
denak neri farra

Neri irakasleak  
konseju eman dit  
paso egitea  
beste lagunetik

Lagun bat erori da  
ez dakit zer egin  
farra egiten badut  
beti bronka neri

Ez dut egin farra  
ez dit egin ezer  
laister gu goaz  
etxera autobuzez

Mikel Kastrillo

## EROSKETAK EGITERA

### Luzia Goñi

Etxera ailegatu  
auxe da gosea  
ozkailua utsik da  
artu dut kotxea

Gidatu eta gidatu  
Dendara ailegatu  
Txorizo eta letxua  
Leendabizi artu

Nik ez nuen ori nahi  
Nik pizza nai nuen  
Baina beti amatxok  
Agintzen du emen

Negarrez asi eta  
Jarri naiz zakarra  
Pizza lortu dut eta  
Ez zegoen txarra

### MITXI KATUA

Katu bat erosi dut  
Ez oso merkea  
Txuri beltza da eta  
Mitxi du izena

Jolasten da gustura  
Nire panpinekin  
Asko jaten du eta,  
Dena piperrekin

Ez da oso laguna  
Txakur askorekin  
Azazkalak atera  
Ta denak aurretik

### Olaia Erbiti

Atzamarka egiten  
Katurik onena  
Asmo maite dut eta  
Katu politena

Maitte Uriarte

## 8.- FORMOSA



nengo gudara arte. Andik janari ego-kiak atera ebazan Japon'ek

Komunistak Txina menperatu ebenean, Formosa Txina'ko abertzaleen esku geratu zan, Txang Kai.Txek buru zala.

Amar milloi bizi-lagun dira eta euretatik 110 000 basatiak, nekazariak eta baketsuak, baiña gizon aundia izateko besteen buruak arrapau bear dabez, zenbat eta geiago eurak aundiagoak. Buru oneik banbuzko sareetan erakusten dabez.

Nekazariak sartaldean dagoz eta lortzen dabena arrosa, azuke-

1590n. urtean itxas-gizon portugaldar batzuk Txina'ren egoaldetik 90 millara egoan ugarte batera sartu ziran. "Ederra" esan nai dauan Formosa ipiñi eutsoen izena ugarte oneri.. Txina'tarrak Taiwan esaten dautsoe.

Formosa-inguruan beste 64 000 ugartetxu dagoz

Ugarte aundi onek 360 km. ditu luzeran eta 120 zabaleran. Itxasotik laster 1 000 m. 'ko goiorea dauken mendiak dagoz. Atzerako 4 000 m. 'ko goieradunak. Arroz-soloak ditu ugari, errekatxuak ondo buztuta.. Arroz- ingurua palmaz eta askotariko zugatzez beterik dago. Baso aundia arago, eta bitarteetan orkide-loreak ugari.. Gorago alkanfor-zugatzak. Gorago piñuak. Piztiak be ugari:Orkatz nabarra,basauntza... Bertako biztanleak eiztariak be ba-dira.

Sartaldean XVI gizaldira arte ez zan ezaguna Formosa. Gizaldi orretan urreratu ziran ara portugaldarrak eta españatarrak eta koloniak jarri ebezan. Txinatarrak ez eutsen izten sartzen.

1664n. urtean mantxuriatarrak egin ziran jabe eta Kotxingan jarri eben errege. Olandar batzuk bizi ziran an eta kanpora bialdu ebazan errege onek..1895n. urtean Txina'ren eta Japon'en arteko gudaren ondoren, Formosa Japon'eri emon eutsoen eta onen menpean izan zan azke-

rea,platanoa,tabakoa, sisak, kakauetea eta babak dira. Ipar-Ameriketan ondo saltzen da eurak lortzen dabena tea. Neskak egiten dabe tearen lana. Eta orretarako azatzal bat eukiten dabe luzeagoa..

Arrozak urtean iru uzta emoten dauz eta ura jazoteko misiolari españatar baten irakatsitako tramankulua dauke, anakaz eragitekoa.

Egurrezko gurpildunen otsa entzuten da zelaietan, basa-idiak eroale dirala. Eta gauzak azokara eroaten dabez.

Alkanfor-landarak berez sortuak dira eta Japon'darrak konturatu ziran onen balioaz. Gobernuak artu eban zugatz onen lana.. Landara beratetik ateraten dabe asko balio dauan sendagai bat.

Erriak eta uriak oso zaratsuak dira: motoak, bizikletak, olezko gurdiak, jeepeak,idi-gurdiak, eskuko gurdiak... eta guztiak zerbait saltzen.. Illobiratzeak eta ezkontzak be zarata aundia ateraten dabe. Gaiñera oilloen karakak,txarrien kurrinkak...

**Olazar'tar Martin'ek**

## 7.- ALDUN EUSKALDUNAK ERROMAN

Bidasoa deritxon Jose Maria de Ganboa'ren liburuan diran 136 testigantzetatik batzuk artzen diardugu, irakurleentzat gurenak litzakezanak ain zuzen. Testigantza oneik Josemiel Barandiaran'ek artu eta batuak dira.

Onein artean dago Javier de Landaburu'k emon eban testigantza. Gure aldunak Erroma'ra deituak izanda an zelan artuak izan ziran agertzen dauskun agiria.

Ikusi dagigun lenengo alkar-izketan nagusi diranak nortzuk diran: Eleizearen aldetik Pizzardo Kardinala bitarteko lez, Pacelli Kardinala lenengo elburu lez eta XI Pio Aita Santua azken elburu lez eta XI Pio Aita Santua azken elburu lez.

Eta euskaldunen aldetik Agirre, Irujo, Robles Aran-guiz, de la Torre, Kareaga, Landaburu, Basterretxea, Eizagirre, Ziaurriz eta Pablo Egibar. Guztiz amar.

Erroma'n emengo albisteak artu ebezanean, dei egin eutsen JEL/PNV'koai ara joan eta barri zeatzagoak emoteko. Beste alde batetik lenagokoa zan euskaldunak Erroma'ra joan eta ango eritxiakaz eta eurenakaz alkar izketa egiteko euken guraria.

Erroma'n euskaldunai laguntzeko eta bideak argitzeko aita Hipolito Larrakoetxea artu eban, karmeldarra, eleizlegetan oso jakituna eta Erroma'ko barriak zeaz eta sakon ekizana.

Euren txostena eskuetan ebela joan ziran ba euskaldunak Batikano'ra eta Pizzardo kardinalagana urreratu ziran. Onek agiri zeatzak eta barri idatzi geiago eskatu eutsezan eta eurak urrengo baten emon be bai. Baiña bereala ezin artu izan ebazan Pacelli Idazkari Nagusiak, egun aretan V Jorge Ingalaterra'ko erregea il zalako eta beste egun baterako deituko eutsela esan eutsen.

Baiña dei ori ez zan etorten eta barriro joan ziran Pizzardo Kardinala ikustera. Onek España'ko auteskundeak zein ondoren izango ete eban jakin nai eban eta euskaldunak euren ustea argi agertu eban, ezkerrekoak irabaziko ebela, eta Kardinalak bere ustea beste bat zala esan eutsen, eskoiak, Gil Robles buru ebela, irabaziko ebela eta gaiñera esan eutsen Euskaldunak eskoitar oneikaz bat egin bear ebela.

Euskaldunak bizi erantzun eban Eleizeak ez ebala olako aukeraketarik egin bear, aukeratuak galtzaille urten ezker, Eleizea bera galtzaille agertzen zalako.

Ori be idatziz eskatu eban Pizzardo kardinalak eta geroago emon be bai euskaldunak.

Azkenean auxe esan eutsen Pizzardo Kardinalak: Euskaldunak agiri bat izenpetzen ez ba'eben Gil Robles'en eskoitarrakaz alkartuko ziralala, ez ebazala artuko ez Pace-lli Kardinalak eta gitxiago Aita Santuak.

Euskaldunak oiñarrikoai eritxia eskatzeko astia eskatu eban eta gaiñera España'ko eskoitarrak euskaldunen buru-jabetzaren arerioak ziralala esan eban.

Alkar izketa orreik egiten ziran artean, Aita Santua'ren ordezeko bat etorri zan Euskaldunen ostatura eta Aita Santua gaisorik egoala esan eutsen eta ez ebala iñor artzen, baiña XV Benedikto Aita Santuaren alde izango zan mezarako deia emoten jakela eta Aita Santua bera izango zala meza-emoille.

Euskaldunak joan ziran meza orretara eta euren lekua euki eban diplomatikuen eta erriaren bitartean, baiña urrengo egunean L'Obserbatore Romano'n agertu zan kronika'n ez zan euskaldunik aitatuten.

Euskaldunak Aita Santuagaz alkar izketa egitea eskatu eta eskatu ibilli ziran. Euren menpetasuna agertu nai eutsen eta gaiñera 25.000 pezetako emoitz bat emon.

Baiña eziña izan zan. Pacelli'k ez ebazan artu eta bide orretatik Aita Santuak be ez. Gero Josulagunen Nagusia-gana jo eban bideren bat aurkitzeko. Onek domiña bana emon eutsen baiña ez zan ezer lortu. Beste bideee batzuk be artu ebezan. Alperrik!

Pacelli'ri eskutitza egin eutsen minduta egozala agertzeko. Egun bat itxaron eban erantzuna artzeko, baiña alperrik. Etxera biurtu ziran. Emengo izparrigiak pozik zabaldu ebezan barriak txar orreik, batez "La Gaceta del Norte"k. Eta ori baiño gauza txarragoa be zabaldu eban Erroma'n arerioak: Euskaldun orreik Abisinia'ko espiak edo zelatariak ziralala. Orduan ulertu eban zergaitik ibilten ziran eurengandik ain urrean Duce'ren ertzaiñak.

Euskaldunak zartako aundia artu eban ba Erroma'n eta antzeko jokabide txarra sarritan ikusi dogu, eta gaur be ikusten dogu, gotzaiñengan eta abade batzurenengan, baiña euskaldunak zintzo jarraitzen dogu fedean eta ez daukaguz aitzuta euskalzaleak ziralako erbesteratuak izan ziran 500 abadeak, gitxiago zio orregaitik eraillak ziran 17 abadeak. Gaiñera millak asko izan ziran, bai Naparroa'n eta bai beste eskualdeetan frankotarrak eta reketeak il ebezan euskaldun abertzaleak. Ilketa orreik be fedean izenean egiten ebezan gu kristiñau txarrak ba'gintzaz lez.

**Olazar'tar Martin'ek**

**OARRA:** Aita Hipolito Larrakoetxea Zeanuri'ko karmeldarra izan zan aldun euskaldunen bide-erakusle ta gidari Erroman eta onek be idatzi eban jazokizun orren edestia. Ez dogu emen agertzen bardin-antzekoa dalako.

# NIRE AUSNARKETA BATZUK (5n Saria)

Zein gaitz az i ezagutzen!  
Ze ligor egiten iat batzuetan belarri barruetara,  
ire berba modue entzuterakoan!  
Ze lastan beste batzuetan!  
Ze soinu maitegarri batzuetan!  
Ze basati beste batzuetan!  
Zenbaten eratara agertzen az i, baiña!  
I sakonki ezagutzen auenik inun ba iauk,  
nor ote dogu zorionsun polit ori?  
Zenbat gorroto aue batzuk!  
Zenbatek maite augu benetan!  
Zenbat eta zenbatek nai aue orain ezagutu!  
Zenbat galdu au indarrez azkenengo gizaldietan!  
Azelako arerioak daukaz ik, euki be!!  
Zenbatera aldatu aue!  
Zenbat astakeri esan dabe iregaitik!  
Zenbat bidarrez ukatu aut!  
Zenbaten damutu naz orretaz!  
Zenbaten nai izan dot, sakonago, i ezagutzea!  
Zenbat pozten da nire gogoia, i, umien agoetan entzun einketetan!  
Ze gozoa az i batzuen agoetan, izan bere!!  
Ze ligorra beste batzuetan!  
Ez daukazak madarikazio itzik.  
I izan intzan nire obabako berba laguna.

Basa kortak, baserri etxe, gaztelu, arri,  
zugaitz, ontto, lur gan eta barru, aitz, ibilbide, belar,  
sasi, erreka, ibai, suge ta egasti gutar  
ta erbeste, patari andi eta txiki,  
basapizti... ta bizi lagun dan danak ezagutzen  
dozak i euren deituraz, ixaroaren ta edoietakoak ere bai.  
Orain eraman aue iri aundietara apal apalez,  
baina abegi onik ez deune egin gor-itzu batzuk,  
basati eta pistien artekoa azelakoan orren ustetan,  
sasiko semea ote azen, ire erritik kanpora bota  
egin gurez azpiko irripartzuek eginez.  
Ameriketako lur zabaletan entzuna az oraindik.  
Zazpi itsasoetan ere bardin.  
Berba gitxi darabil dozakela usten dabe ezergitxi esagutzen auenak.  
Zenbat kaletarrek emon deune iri lepoa, abarkadunen  
izketa baino ez intzalakoan!  
Ze gitxi maite aue ezezagunek, arlotearen  
agoetan baino ez abilelakoan!  
Ez dakikela ik idazten, esan eroien.  
Ian, edan, lo... Nor ote da oraingoan ba, olakorik  
ez dakiena? eta noiztik ganera? E!? esan...!  
Zenbatek erritar, bizitzan gorroto eta eriotzian besarkatu  
egin aue zotinka ta malko negarretan?  
Zenbatek gure leike, i, ilda ikusi!

Zenbat azoketatik bota egin aue ulertu ezinda!  
Zenbat urtetan etxe barru, baituta kontuxu, euki izan  
aue galazota, erdera zala nagusi kaleetan,  
ire orde txorien kantue baino ez zala entzuten!  
Zenbat gutar, Pilatosenak eginda, ez dabe ezer jakin  
gura izan itaz, da geienez talko autzak bota  
ezinezko bat azelakoan etorkizunerako?  
Zenbatek ukatu aue, ire izena ilketa  
damugarrietakaz naazu auelako!  
Zenbat medikuentako itxaron gelatan ixeltzeko  
aginduek emon deune, legenagaz baengoz be!?  
Zenbatek urreratu jazak bizimodua errezagoo  
irabaziko dabelakoan!  
Zenbatek guraso euskaldunek ez eutsien irakatsi euren  
aurrai ire izkuntzan, eurena pasatu ez deieen,  
lotsa gorriek iruntsi ta iruntziz, boterearen mintzaira  
ez jakitearren sortzi joan bear zan gogor baino gogorrago  
urte aretan, orduko belaunaldi eder areri kaput eginez!  
Zenbatek artu aue berbabidez!  
Zenbatez notaritzatan, inuzentziak baino ez direnei  
begitu aue irripar makur batekin,  
ta buruari gora ta beera eraginez,  
euren agoa alkate zalakoan!  
Zenbat atzerritar urbildu iazak, arritua, i ezagutu naian!  
Zenbatek nai aue i bigarren izkuntzatat!

Zenbat eta zenbatek maite aue geroz eta geiago!  
Zenbatek ez aue oraindik onartzen!  
Zenbat eta zenbatentzat egin aiz ezagun orain munduan  
zear zorioneko telebistaz!  
Zenbat gizon motz aitite egin barri, euren ilobatxuaren  
aitxakiagaz azi dire ire izkuntzan urratzen, i ikasteko  
azken aukera izango dabela eta!  
Ze damu naiz, i, sakonago ez ezagutzeagaz,  
zenbat nai nuke nik ori!!  
Zenbat bidarrez pentza izan dot penaz beterik,  
ire semeetatik azkok ut eta ufa eginda, ken akit orti esanda,  
artekozo azkenengoetan egoala!  
Zenbatek emon dabe euren odola iregaitik!  
Ze ederra izango zan, bertsolari banintz, itz neurtuetan  
irekin berba egiteko!  
Zezer magikoa daukak euskera, zeren geroz eta geiago ezagutu,  
geiago azelako maitetua!  
Zenbat goralduten da nire biotza, orain arteko eziak  
eta oztopoak gaindituz, beste izkuntz indartzuekin  
batera i ikusteaz inolako ikara barik!  
Zenbat gizon jakintsu irekin izketarako zendu iakuzak,  
euren utz uneda negargarria betetzea gaitz baino gaitzagoa  
izango dogula!  
Ez dakit zenbat, gitxi ala asko, baina ziur nago maite autela!  
ire sugarren bat argitu deiela nire gogoia azken arnasa emoterkoan!

Alberto Narbaiza Etxeandia



# AGIRIKOZALEAK ETA IZATEZALEAK (FENOMENALISTAK ETA EKSISTENTZIALISTAK)

Husserl'ek ipiñi eutson oiñarria fenomenoloji edo agirikozaletasunari eta filosofi au laster zabaldu zan Europa osoan eta emendik Ameriketara. eta Asia'ra..

Filosofo'rik aundienak Max Scheller eta Heidegger dira. Azkenengo au lenago aztertu dogu.

Iturri beratatik sortuko dira gero izatezaleak edo eksistentzialistak. Bide au Heidegger'en bidez eldu zan Sartre'gana eta Camus'egana.

Fenomenolojiaren bide onetan daukagu Edith Stein andrea. A judatarra zan kristiñau egin eta lekaike karmeldarren artera sartu zan. Naziak arrapau eta judatarrentzat euken laban erre eben. Gaur santa eta Europa'ren zaindari dogu.

## HUSSERL 1859-1938)

Judatarra da baiña kristiñau egin zan. Asko idatzi eban eta beti fenomenolojiaren alde. Artxibo aundi baten dagoz bere esku idazki asko. Agirikoa edo fenomenoaren artzen dogunean, gauzea bera gueganatzen dogu..

## MAX SCHELLER (1874-1928)

Ama judatarra eban eta aita be ezkontzeko judatar egin zan. Bera batxiller ikasten egoala egin zan katoliku.

Diltey'ren ikasle izan zan Berlin'en. 1901n. urtean Husserl ezagutu eban eta beroneri jarraitzen asi zan. Irakasteko bai-mena kendu eutsoen ezkontza-arloan oker jokatzan ebalako

1913n. urtean asi zan balioen filosofia irakasten eta orretan da gaur ezaguna. Azkenean dana-jainko edo panteista agertzen da.

Gizonak ondo daki zertasuna (esentzia) eta izatasuna (eksistentzia) banatzen.

Balioak dira bere gai berezia: 1) Zentzunen balioak, esaterako atsegiña, poza... 2) Bizien balioak, esaterako egoera ona, zintzotasuna, adorea... 3) Gogoaren balioak: Egia, ederra, zuzena... eta gorengo dagozan. 4) Erlejiño-balioak. Beti gagoz goragoko balioetara deituta, baiña orretarako beragokoak ez dabe izan bear oztopo.

Gizona izatez erlejiñoduna da..

## MARTIN HEIDEGGER (1889-1961)

Bide orretara sartu lei au be, baiña beste leku baten agertu dogu. Batzuk izate-zalea edo eksistentzialista dala diñoce.

## IZATE-ZALEAK (Eksistentzialistak).

Oneiek dira XX gizaldian entzuterik geien lortu daben filosofoak. Guda bien artean zabaldu zan filosofi-bide au eta 50n. urterako zabal egoan Europa guztian eta Ameriketean. Sartre, Camus eta Marcel dira zabaltzailleak. Guda-giroan bizi diran filosofo itunak dira. Kierkegaard'en larria ez dauke aitzuta eta Nietzsche be buruan darabille, baiña idazle onak dira eta atsegiña zabaldu eben. Ez dauke guztiak jokabide bar-diña.

## JASPERS (1883-1969)

Nazien aurka jokatu eban eta kalteak etorri jakozan, batez be irakatsi-eziña..

Oiñarria: Zientziak eta filosofia zelau alkartu eguneroko bizitzagaz. Jainkoagana ezetzaren bidetik eltzen gara.

## SARTRE (1905-1969)

Sendia protestantea zan. Ezkondu barik alkartuta bizi izan zan bizitza osoan.

Bere lanik onenak "Izatea eta ezereza" (1943) eta "Nausea" edo asperkuntza dira.

Idazle oso ona da, elebarriak eta antzerkiak idazten be bai, baiña beti izate-zaleen bidean.

Naziak atxillotu eben baiña aske geratu zan.

Bere filosofia agertzeko "Denpora barriak" eritxon aldizkaria argitaratzen eban bere lagunak batera.

Marx'en bidea onartzen eban, baiña era berezian..

Jainko-bakoen artekoa da, bere ustez Jainkoa izateak gizonaren askatasuna kentzen daualako.

Gaur jarraitzaille gitxi geratzen jakoz.

Olazar'tar Martin'ek

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

## 36'KO GUDA EUSKALERRIAN

Uztaillaren 18n. egunean, Franco'ren matxinada asizanean, laster agertu ziran lenengo ondorenak. Onein ezauzarri da "Guernika Pikasso'ren lauki ederra, guda-toki ez diran errien bonbaketa agertzen dauala.

### 1.- OTXANDIO'n

Erri txiki au izan zan erdi-ugarte osoan guda eldu baiño lenago bonbatua izan zan lenengoa: 1936'ko uztaillaren 22'an. Il ziranak Santa Marina eguna ospatzen egozan. 57 andra eta ume il ziran.

Jazokizun au eskutatu egiten dabe edestilariak. Zergaitik? Bizkaitarrak itxartuteko eta guda gogorra zala ikusi egien egin zan. Ordura arte Bizkaia bakean lez egoan.

Aldi aretan egazkin txiki ikusten zan aidean eta egun aretan bat etorri zan lenengo erriaren gaiñe-gaiñera. Umeak urten eben egazkiña agurtzeko. Egazkiñak plazara bota ebazan lerkaiak eta ilketa aundia egin eban. Zelako bildurra sartu zan errian! Bilbao'tik ara joan ziran medikuak dira lekuko. Ikaragarria!



Ilketa ori egin ebana Salas Larrazabal Orduña'ko militarra ta edestilaria izan zan. España'ko erregea dan I Juan Karlos'ek egazkin-arloko Kapitai Nagusi izendatu dau.

### 2.- IRUN'en

Eundak boluntario atzerritarrak artu ebezan armak Irun zaintzeko, laterri-arteko brigadak etorri baiño lenago. Bartzelona'ra joiazan olinpiadetan kideko izateko eta bidean aurkitu eben matxinada, muga itxita egoalako. Beljika'ko komunistak ziran eta komunistakaz alkartuta bete eben ekin-tza ori.

Mola'ren gudariak ezin sartu izan ziran Irun'era, iraillaren 5n. egunera arte, ilebete ta erdiko burruka egin-ondoren baiña, artean, atleta komunistak egin eben lana, erria zaintzen. "Kondor" egazkiñakaz etorri ziran Mola'ren lagunak eta oneik iraillaren 5n. egunean sartu ziran. Guk "Irun sutan dago" entzuten gendun orduan, Frantze ta Europa'tik alden-duta geratu giñan euskaldunak eta ezin izan gendun izkillurik leorrez ekarri.



### GUDARIAK (Berazategi-Domingez) 1936'ko guda Euskalerrian

Euskalerria gudara urten eban erri bat zan, bere burua zaindu nai eban erria.

Euskaldunak ondo ekien guda egin ezean be, bardin izan-go zirala España'ren aldetik, zapalduak.

Besteak baiño izkillu gitxiago euken, baiña adorea gei-ago. Orregaitik, asieran zapaldua izan zan beste errialde batzuren antzera, ezkertarrak izan ziran guda-aurrean zapal-tzailleak. Notiñak, ilten eta eleizak erreten eta olakoetan asi ziran emen be, Jauralaritza sortu baiño lenago.

Alde batetik naparrak etorri ziran eta bestetik, egoaldetik arabarrak eta matxinoai aurka gogor egiten asi ziran, guztiak eritxi batekoak izan ez arren.

Eduardo Renobales'ek aztertu dau ANB'ren jokabidea aldi aretan. Ez eben nai erkalagaz bat egin, araudiaren aurka egozalako.

Beronek aztertzen dau Jagi-Jagi'koen jokabidea be. Oneik be ez ziran beti zuzen ibilli, araudiaren aurka egozalako.

Eta beste au diño: "Euzko Gudaroztea" bere erriari lotu-ta egoala eta bere lurra ondo ezagutzen ebala, euren aberria zalako: mendi-arte latzak, bide txarrak eta arerioak egazkin eta artilleri onagaz etozala. Mendi-artean gabaz egin eikien aurrera eta gero eguneaz atzera.

Gudariak be beti ziran arerioen soldaduak baiño gitxiago. Euskaldunak baiño ez ziran eta besteren artean falanjekoak, erreketek, Afrika'koak, italiarrak eta alemanak (Condor) egozan. Guztiz 100.000 ziran soldaduak eta 45.000 gudariak. Gaiñera gudariak ez egozan gudarako gertatuta, zibillak ziran, agintariak be bai. Baiña, Soldadu gei-ago euken arerioak baiño, gogo eta adore gei-ago euken gudarako gudariak.

1937'ko martiaren 31n. egunean asi zan Mola Bizkaiaren aurka guda egiten, aste bitan Bilbao'ra elduko zalakoan, baiña iru illebate bear izan ebazan. Gudaldi gogorrak izan ziran Saibigain'en, Sollube'n, Bizkargi'n eta Artxanda'n, "Burdinezko garrikoa" igaro ondoren. Egunez galtzen ebana, sarritan gabaz barriro eskuratzen eben, egazkiñak aurka ez eukelako, esan dogun lez.

Lenengo osotu zan askotariko gudaroztea, onei milizianuak esaten jaken, eta eurak izan ziran gerokoaren sorleku.

Gero alderdi politiku bakoitxak bere gudariak gertatzen ebazan eta naikoa ondo alkartu ziran gudarozten bakarra osotzeko.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## 4.- LUR-BURUAK

Lur-buru edo “polo” biak dira bizi izateko tokirik txarrenak, alde batetik otz aundia dagoalako eta bestetik gaua naiz eguna sei illebetekoa izatera eldu leitekela.

Ipar-buruan dago lurrik geien: Groelandia, Islandia eta Alaska. Lurralde onei seigarren lurratea edo “kontinente” deritxe eta 24 Frantze’ren besteko zabalearea dauke. Ego-buruan ez da inor bizi.

**Islandia** bere buruaren jabe da eta su-mendiz beterik dago.

Ango iturriak ur beroa emoten dabe eta ba-dagoz urte guztian uger egiteko aukerea emoten daben ur epelezko zingirak be.

Barazkiak urte guztian emoten dauz lurrak, “geiser” edo iturri jaurtikari beroen ondoan.

**Groelandia** Dinamarka’ren menpean izan da, naizta Dinamarka bera baiño 50 bidar aundiagoa izan.

Ogei milla biztanle baiño ez daukaz. Oneik geienak begi-zeur eta ule-baltz eskimalak dira.

Alderik geienak izotz edo leipean dagoz, baiña udan 20.ºraiño be eldu leiteke otzo-beroa eta orduan aitzak agertzen dira. Inguruetan lore batzuk be bai.

Baiña laster etorten da barrero negua eta itxasoa izoztu eta luraren gainean edurra ikusten da.

Udan gaurik ez dago baiña neguko iru illebetetan egunik be ez.

Gau luze oneitan noizean bein “aurora boreal” edo ipar-buruko argiak agertzen dira zeru-islari.


**Alaska** Laterri Batuen menpean egon da.

Otzari geiako egiteko biztanleak itxas-otsoen eta artzuriaren narruak jazten dabez eta iztarretaraiño oineta-koak.

Neguan narruz estaldutako arrizko etxeetan bizi dira eta bidez doazenean bizi izateko edurpean egiten dabez aterpeak.

Bidez joateko trineoak daukez, txakurrak eroale dirala. Laguntzaille ona dabe itxas-otsoen koipea, kruzeluak iziotu al izateko edo beroa ta janariak lortzeko.

Biziera gogorra da munduaren alde oneitan daukena!



Artiko aldeko karak

## 5.- ASIA’KO SIBERIA

Europa’ren mugda diran Ural-Mendiak erdi bi egiten dabe Siberia zabala, sartaldera europarra dan Siberia eta sortaldera asiarra dana. Dana dala, Asia’ko Siberia’k ez dauko Europa’koaren antzik. Gaur begiratu dagigun azkenengo alderdi au eta bertoko biziera aztertu.

Amabi milloio m2 dira eta luraren ipar-buruariño sartzen da. Andik beerantza baso aundi, illun eta isillak dagoz, lenengo tundra izoztua eta gero taiga zugatz sendoz betea. Tundra’n ez dago txoririk, ez zomorririk. Taiga’n asiko gara piztiak ikusten.

Berantza gatozela, urrengo, landa zabalak eta emonkorak aurkituko doguz eta jakiña da azkenengo lurralde onetan aurrerapena lortu dauana Transiberiano deritxon trena dala.

1900n. urtean egin zan trenbide au. Egitasmoa ikaragarria zan: 9.000 km’ko trenbidea Europa’ko Errusia’n asita Vladistok’eko geltokira, basamorturik basamortu.

Trenbide oneri eskerrak bizi da jentea inguru areitan, lurra goldatu edo laiatu ondoren eta luraren azpia oso aberatsa aurkituta.

Egoaldean dago Turkistan, berez basamortu menditsua, baiña alde batzutara ura eroan dabe eta ezetasuna lortu da, maatsa, algodoia ta igaliak lortzeko. Inguruetan nekazari-erriak agiri dira.

Asia’ko Siberia onetan 150 enda ezbaridietako giza-kiak bizi dira, meta-itxurako etxeetan: lakutoak eiztariak dira eta edur-auntzak eizaten dabez, samoiak erdi-aldean bizi dira eta onein etxeak enborrakaz ta ziriakaz egiten dabez, egoaldeko mongoliarrek artegiak daukez eta Turkistan’eko turkomanak gelditu bagerik ara ta na dabilz, oituraz “nomadak” diralako eta eurakaz eroaten dabez abereak. Jantzi be politico jazten dira artule edo laneagaz.

Lurralde au “tzar”en aldian bakartadea zan baiña gaur olagintza edo industria onartu dabe eta asko aurreratu dira.

**Olazar’tar Martin’ek**



## 14.– ALZESTE'REN OPARIA

### Tesalia'koa

Tesalia lurraldeko Perea urian buru makur ebiltzazan biztanleak. Ez ziran alkartzen enparantzan eguzkia artu eta astialdiak igaroteko. Erregea euken gaisorik.

Itxaropena galduta, euren errege gaztea il ez daiten jainkoengana urreratu ziran erreguka eta batez be Apolo'ri eskintzen eutsoezan euren opariak.

Erregea geroago eta txartoago egoan eta Apolo Jupiter'en aurrera urreratu zan osasuna eskatzera. Baietza emon eban Jupiter'ek, baiña erregearen lekuan beste bat iltekotan.

Iñork ez eban nai erregearen lekuan ilterik.

Azkenean, erregearen guraso zarrak aurkeztu ziran seme erregearen lekuan ilteko gertu. Baiña ez ain ziur.

Urren, beste aide eta adiskide batzui egin eutseen eskaria Apolo'k, baiña guztiak atzera egin eben. Bardin jazo zan gudariakaz, eta erregea bere gaiso-aldi larrian bakarrik geratu zan.

Ikusi eban Apolo'k Perea uri aretan ez egoala bat bera be erregeagaitik bizia emoteko gertu, baiña barri ori Jupiter'eri emoteko egoala, urreratu jakon Alzestes erregearen emaztea.

– Neuk emongo dot neure bizia, erregea osatu daiten –esan eban–.

– Eta nork asiko dauz errege-semeak?

Ezin izan eban Apolo'k emaztearen erabagia aldatu. Eta atsekabez esan eutson:

– Ogeratu zaite eta zeugana igaroko da Erregearen gaiso larria.

Bereala bizkortu zan erregea. Alzestez erregiña, ostera, il-zorian egoan. Antxe gela beratan egoan eriotzea, orduari itxaroten.

Egun aretan eldu an Perea'ra Erkules biotz aundiko gizona eta egoera aren barria jakin ebanean, sutu egin zan: eta jauregira joan zan Alzestes eriotzatik ateraten.

Urreratu zan Erkules erregiñarengana, eriotzea be bai, eta Erkules'ek bere atsamarrakaz eldu eutson eriotzeari eta antxe itoko ebala esan eutson, baiña eriotzeak bakean izteko eskatu eutson eta alde egingo ebala.

Atetik kanpora atera eban Erkules'ek eriotzea eta an itzi eban. Bat-batean osatu zan Alzestes eta arrezkero osasunez bizi ziran errege-erregiñak.

### 15.– ENDIMION IRETARGIA TA DIANA (ERROMA'KOA)

Iretargi betea zanean, bertan emakume eder bat ikusten zan ugelakaz lotuta, eiza-txakurrak eroiazala. Diana zan iretargiko jainkosea. Jainkoen batzar batetik iretargira joiala, Cupido'k ikutu eban bere gezi bategaz, eta Diana be maiteminduta geratu zan Endimion izeneko artzain gazte bategaz.

Cupido'ren gezi arek ikutu-ondoren Lamos'ko mendi-gaiñetik joiala ikusi eban artzain gazte au artaldea zaintzen, arpegia iretargiari begira ebala. Osoan matemindu zan Diana eta gaiñetik iretargian igaroten zanean, pozik ikusten eban mutil gazte artzaiña. Eta gau areitariko baten iretargitik jatsi egin zan mutillaren ondora. Eta apur baten begira egon-ondoren laztandu eta barriro igon zan iretargira.

Artzain gaztea ez zan itxartu eta konturatu be ez jainkosea bere ondoan egon zanik.

Baiña Diana'ren maitemiña geitzen joian eta sarritan joaten zan ikustaldiak Endimion artzain gazteari egitera, batzutan iretargia itzita, beste batzutan betiko ebillerea egin barik. Baiña oker aundiak sortzen ziran lurtean iretargiak ibillerea egiten ez ebalako.

Konturatu ziran Jupiter eta beste jainkoak iretargiak ez ebala bear dan lez argi egiten gauetan zeruan, eta zelatan jarri ziran zer jazoten ete zan.

Zaindu eben Diana be eta baten, bere egitekoa itzita jolasean ikusi eben Endimion artzaiñagaz. Dianak argi esan eutson Jupiter'eri zelako maitasuna eutson Endimion artzaiñari eta berau senartzat artzeko baimena eskatu eutson. Jupiter'ek ezezko gogorra emon eutson. Eta beti neskatilla irauteko agindu Diana'ri.

Jupiter'ek aukerea emon eutson Endimion'eri, edo nai eban eriotzeaz iltea edo beti gazte jarraitzea, baiña beti lotan. Bigarren au aukeratu eban Endimion'ek eta bertan loak artu eban.

Noizean bein Diana'k aitzu egiten eban Jupiter'en agindua eta Lamos mendi-gaiñetik iretargian igaroten zanean, apur baten iretargia gelditu eta lo egoan artzaiñagana joaten zan so egitera., baiña iñok ezin eban itxartu Diana Jaikoseak maite eban artzain gaztea.

**Olazar'tar Martin'ek**

# GIZAKIEN ARTEKO JAKINTZA

Gizakiak arriak naiz paluak naiz azurrak naiz beste gai batzuk erabilten asi ziran euren lanak egiteko naiz etsaien aurka jokatzeko.

Gizakien eta beste primateen arteko aldeak aitazten doguzenean, gizakien gorpuzkiak aitazten dira, edo buruko garunen aunditasuna edo esku ta oinien erakundea edo aurpegiarena, baiña tximiñoiengandik zerk urrintzen dauzan gizakien sendiak jakin gura ba' dogu, ez dogu aitzu bearko oin biren gaiñean ibiltea eta izkuntza. Ikusi dogu oin bigaz ibiltea, geroago aztertuko dogu izkuntza. Aztertu daigun orain izkilluak eta lanabesak egitea.

Lanabesak batera doa eiztaritza.

Leizetan sastegiak ikusten dira eta or agertzen diran ondakiñak ondo datoz sasoi ezbaridiñetako azterketa egiteko: Dortoken, txorien, arratoiien eta auntzen ondakiñak dagoz eta or ikusten da zelan erail ebezan (golpeka, arrizko ertzakaz ebagita...) Eta azurrak eurak be balio izaten eutsen lanabesak egiteko, zauritzeko eta ebagiteko. Ortik dator lanabesen kultura, azurrezkoena lenago, arrizkoena baiño.

Nortzuk izan ziran lanabes onein egilleak?

Aurretiaz jakin daigun lanabesak eta gizakiak beti toki beratan agertzen dirala eta gizakiak dirala beti egilleak.

Gizakien astarrenakaz batera dagoz piztienak be.

Arduraz ibilli bear dogu antxiñako lanabes landuak gizakienak dirala diñogunean, esaterako "boisei" gizakia eta Olduvay'ko lanabesen egillea. An ez dago besterik. Lekuz eta denporaz batera agertzen dira beti gizkiak eta lanabesak.

Baso baltzetik sabana'ra joan ziranak gizakiak, "homo habilis" izan ziran eta or ugaritu ziran lanabesak.

Gauza ziurra da "homo habilis" izan zala sabanan lanabesen egillea. Batez be Olduvay'n agertzen da ori.

\*\*\*

## GIZAKI ZARREN ESKUAK

Paranthropus'ek egin ei ebazan lanabesak. Au landarajalea zan, orduan zeertarako lanabesak? Oneik aragi-jaleentzat dira. Ez lanabesak "homo"renak dira.

## GIZAKIEN JANARIAK

Lanabesak erabiltea eta aragi-jale izatea beti alkatu dira, Darwin bera asita.

Baiña zer jaten eben antxiñako gizakiak?

Txinpanzeak dana jaten eben, omniboroak ziran: Orriak, gorpuak (carroña) eizakiak... Gizakiak be bardin, antza, baiña oneitariko batzuk geiena aragia jaten eben sabana agirietan eta orretarako lanabesak bear ebezan, orrelan errezago zan aragia aurkitzea.

\*\*\*

## GIZAKI EIZTARIA

Lanabesak egiten diran aldirako, burua aundi eginda dago, zutunik ibiltea be lortu dabe, sabanan aragia jateko oitorea be ba-dauke.

Taldeak alkarren aurka jokutzen eben eta orrelan taldea sendotu egiten zan. Aurka jokatzeta ta eiztaritza batera doaz, baiña eiztaritza ez da aurkajoka (agresion) biziteko bidea baiño. Arrak egiten dabez burrukaldiak emeak menperatzeko, baiña eiztaritzarako eta burrukarako lanabes bardiñak dagoz.

Gizakien artean arrak dira eiztariak eta emeak ume-zaiñak eta landarazko janariak batzen dabez.

Eiztaritza ta aragi-jatea taldea sendotzeko bidea dira.

Lanabesak egiteko lenengo arria edo gaia aukeratu bear da, arri-mota egokia artu egin bear da lana egiteko: losetan zatitzen diranak. Eta jakituri ori gazteai irakatsi bear jake. Orrelan doa burua aldatzen eta "cerebeloa" iru bider aundiagoa egin da.

\*\*\*

## GIZAKI EMAKUMEEN ZEREGIÑAK

Ez dira bardiñak primateen arrak eta emeak, ez gorpuztez eta ez lanez, baiña aundiak-txikiak mota bi dira ala ar-emeak? Beti geratzen da zalantza. Gorputza ez da bardiña, emeak bularra, arrak bizarra eta sakilla.

Zeregiñak bananduta agertzen dira: arrak lurraldea zaintzen dau eta datozen jaleak ezagutu eta uxatu, emeak umeak zaindu.

\*\*\*

## GIZAKI GORPU-JALEAK (Carroñeros)

Aragi-jaleak eiztariak dira ala pizti illak jaten dabez? 1) Gizaki zarrak lanabesak darabillez narrua sendotzeko, aragia ebagiteko aitzo lez, egurra ebagiteko aizkora lez. Eiztaria eta gorpu-jalea biak dagoz "homo habilis"en barruan. Lanabesagaz azurrak apurtzen dabez une aterateko. Oldubai eta Koobe-Fora'n orregaitik dago ainbeste azur, milloi bigarren urte-inguruan. Lenengo azurrak agertzen dira, geroago lanabesak eta azurrak eta geroago lanabesak, azurrak eta askotariko piztien azurrak. Pizti aundiak eizatzeta 100.000 urte dirala asi zan.

\*\*\*

## GIZAKI BATZAILLEA

Gizakiak sabanan aziak batu egiten ebazan, tuberkuloak be asko, eta sua bear eban. Emeen lana zan ori. Omniboroak ziran.

\*\*\*

# GIZAKIAK

## TEKNOLOJI-EREDUA

Zer dauko zer-ikusirik arrizko lanabesak eukiteak, buruz aurreratua izateagaz?

Bizitzan euren zeregiñak banandu egiten dabez. Talde batua eta aginte mailak ipiñi, sinboloak artu.

\*\*\*

## LANABESAK AURETIKOENGANDIK IKASITA

Olduvai ez da izan lenengo lanabes-lekua, baiña oso ondo dagoz an lanabesak. Nortzuk egiñak? Noz? Zertarako?

Batzuk antxiñakoak dira, milloiak urteak geroago atxelense'koak etorriko dira.

Era askotakoak ziran Olduvai'koak:

1.- Arri biribilduak, ago barik, golpeak emoteko, mailuak

2.- Golpez landuak, ertz zorrotza, azurrak apurtzeko eta una atera.

3.- Laskak: golpeakaz soltau. Zorrotzak dira, narruak ta okelea ebagiteko.

4.- Gastatzailleak (raederas): agoa aizto aginduna lakoa, narrua ontzeko.

5.- Poliedroak edo esferak edo diskoak. Ez dakigu zertarako.

\*\*\*

## OLDUVAI'KO KULTUREA

Sasoi ezbaridiñak agiri dira, milloi ta erdi urtetan.

Ikasbide bi artu dabez an, Olduvai'koa ta atxelense. Eta gizaki-mota bi agertzen dira "homo habilis" (Olduvai) eta "homo ergaster" (Atxelense).

Beste leku batzutan be antzeko lanabesak dagoz, esaterako Kenia'ko Turkana'n 2,3 milloi urtekoak 3.000 lanabes, gaiak kontu aundiz aukeratua. Zurrak dira! Etiopia'n 2,33 milloi urtekoak 34 lanabes (1934).

\*\*\*

## ATXELENSE'RA

Emen obeto landuak dira. Noz egin zan aldakuntza aundi ori? 0,70 milloi urte.

1975n. urtean 1849 lanabes aurkitu ziran (251 aizkora, gero beste 20.000 lanabes. 0,7 milloi urtekoak.

Etiopia'n Atxelense'ko lanabesik zarrenak dagoz "homo ergaster"enak. Eta batera dagoz Olduvai'ense ta Atxelense, azkenean atxelense baiño ez.

\*\*\*

## AFRIKA'RIK KANPORA LANABESAK

Asia'n ba-dago "homo erectus" eta atxelense be bai. Gizakiak dagoz Afrika'tik kanpora, baiña leku otzagora joan dira, eskerrak sua daukena lagun eta gizaki-moten lanabesak nastau egiten dira.

Java'n lanabes gitxi dagoz. Azurrezkoak erabilten ete ebezan?

Europa'n agertu da atxelense'koa dan eskuko aizkorea edo bifaz.

1,4 milloi urtekoak Ataperka'n dagoz.

Orce'n be bai aldikadetan. Ez da aiztu bear Europa'n eta Asia'n izotz-aldiak izan zirala.



## 16.- Oiartzun eta Nartziso

Juno, jainko guztien erregiñea zan jainkosea, oso asarre egoan Oiartzun'ek egin eban utsagaitik eta zigor bereizi bat bota eutson Oiartzun maiteder gaixoari: Bere burutik itz egiteko almena kendu eutson. Ez eukan almenik besteak esaten ebena barriro esateko baiño.

Naigabetu zan Oiartzun eta basoetan, bakarrik bizi zan.

Baso illun baten Nartziso aurkitu eban eta onek esan eutson:

- Maiteder, ez alde egin!

Eta berak erantzun eutson:

- Maiteder, ez alde egin!

Sutan jarri zan Nartziso, neskeak irri egiten eutsolakoan eta atzea emon eta iges egin eban andik.

Oiartzun gizajoa negar eta negar gelditu zan, mutillak aintzat artu ez ebalako.

Nartziso gazte pinpiriñak be, bere zigorra artu eban ain biotz gogorrekoa izan zalako Oiartzun'egaz. Nartziso ur garbiko osin batera urreratu zan ura edateko, eta uretan bere burua ikusi eban eta neska eder bat ikusten ebala iruditu jakon. Makurtu zan neska orregana eltzeko, baiña alperrik, eskuetatik alde egin eutson.

Urari bakean izten eutsonean, barriro ikusten eban neskearen barretxua eta barriro ara eltzeko alegintzen zan, eta barriro alde egiten eutson.

Orrelan ebillala, maitemintzen asi zan bere burua izan eta neska baten antzera agertzen jakon irudi aregaz. Eta azkenerako zoratu egin zan neskea arrapatu bear ebala-ta eta uraren ertzean etxunda igaro ebazan egunak, bertan il arte.

Lora eder bat emon eban mutilla obiratua izan zan toki-ko lurak eta "Nartziso" ipiñi eutsoen izena antxiñakoak lore eder oneri.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# ITSASOAK URAK AUNDI: BALEAK

Pozgarri zait arrantzale jatorrikoa naizela esatea. Onek osertz edatsuko amets-zelai kresaltsuari begira jartzen nau gozoki ta unkigarriro. Izan ere gizakiaren edestian, atalbururik goragarriena itsasoan idatzia dugu. Ta irakurleak dakikeenez, europar mendebaldeko erri artean, euskalduna da itsas-zalerik aundienetakoa.

Euzkadi'ren edesti-zatia itsas-ontzietako ol gaiñean egiña dugu neurri aundi batean, bai Kantauri itsasoan eta bai iparraldekotan normandiar, ingles eta bretoi jendearekin leia bizian.

Benetan misterio aundiko mundua dugu osin gazi neurrigabea. Gaiñera ederra, bai bare danean eta bai arroturik beldurgarri gertatzen zaigunean. Ta misteriozko gune eskerga danez, ixilgorde asko ta asko estaltzen ditu bere sabeltzar ta zirkillu sakonean.

## Euskalduna noiztik itsaso-zale?

Ez da aixa erantzun daiteken galdera. Gure jatorriko leenengo arbasoai, urri ziran garaiean batez ere, beldurgarri ote zitzaizkien ur aundiak? Nolanai ere, kemenak egin zituan ur-zale. Eta itsasoa, bearrikan asetzeko ta elikagaitoki oparo zitzaiea antz emen ziotenean, aieruz lenbizi bearbada, baiñan bipilki gero, ausartu zitzaizkigun uretan sartzen ta zabalera irtetzen. Gure aitzulo zaarretan ugari dira aurkitutako arrai-ondakin, txirlak, maskorrak, lanpernak, magurioak, e.a. jaki auen zale zirala adierazgarri. Eta ba'dira, euskaldunen eder-sen bizi erakutsirik, arraimarrazkiak beren orma otzetan itxuratuta ere, Orio'tik urbil xamarreko Altxerri deritzan aitzuloan bezela.

## Arrantzale-erri

Bizibide ta bizibearrak eraman du batipat euskalduna itsasora. Beste jende-mota bat artzai izatera edo lurra lantzera eraman duan bezelaxe.

Baiñan gu danon jakinmiña ez da bereala naikotzen. Ta galdezka jarraitu nai dugu elezar-aro edo izarretan erantzuna aurkitu nairik. Noiz ausartu zitzaizkigun enborontzitan arraunai eragiñez edo-ta errun zabal-xamarreko lengoak baiño erosoagoetan arrai aundiak arrantzatzen? Urruneko itsasbidetan barna ur aundi ta sakonetan ausartzen bait-dira antziñatik euskaldunak balearen eizaketan.

Uste danez, erresakak eta olatu-tiraiñez bultzata illik etorri zitzaizkigun gure ondarretara lenengo baleak, txiki ta ipotx-xamar agian, ez aundiak noski. Onela ba, bereala oitu zitzaizkigun balea larrutzen, jangarri premiatsua ateratzen, lumera deritzan ixuri koipetsua biltzen eta poliki-poliki alako aberetzat aundi ta biziari bildurra galtzen.

## Bizkai-Kolkoan

Baleen arrantza noiz asi ote zan? Ba'dirudi aspalditxo ementxe bertan. Oso ezaguna bait-da "Bizkai-balea" deritzan balea-mota; "Bizkai-balea" dalakoaren ezurdura ikus daiteke Donosti'ko "Aquarium" erakustegian.

Orduantxe sortu zizkiguten gure gizonak (eta etzan asmakari makal izan) lenengo arpoi sakailkorak. Baiñan ez dirudi besterik gabe bale-arrantzara joaten ziranik, gaur beste edozein arrai arrantzatzen dan antzera. Aurrenik arrantzaleai, balea legorrera noiz urbilduko itxoitea zegokien, noiz agertuko irrikatzen, beti zai.

Euskal kostaldeko erririk geienak jardun oi zuten arrantza-mota onetan: Donostia, Pasaia, Zarautz, Getaria, Zumaia, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio... Au dala-ta itsasertzeko erririk geienak balearen irudia dakarte beren armarrietan.

## Talaiak eta talaiariak

Antz ematen diogunez, bale ugari izan zan garai batean, baita gure euskal itsasertz inguruetan ere. Ageritzen ziranetatik alerik galdu etzitzaien, talai edo begiratoriki berarizkoak jaso oi zituzten gure aurretikoak lekurik garaieketan eta egokienetan. Eta toki berezi oietan talaiari deritzan gizonen bat zaiepan guatari jartzen zuten. Gure itsasegaleetako zenbait lekutan ba'dira deitura egokiz bataiatutako guaituneak. Donosti'n Uliamendian ba'da "Bale-zalearen aitzia" deritzan leku jaso bat, garai bateko zaitzailleen opaz eta oroigarritz, gaur idazkun aipagarria daukana. Orio'n ere ba'da Talai mendia, bale-guaitan egon oi ziranen leku gaingunetsua.

Talaiariak, urrutian balearen bat begiematen zuanean, asaldagarritz, kanpai-otsez edo-ta sutea pizturik dei egiten zien kaiguneko arrantzaleai. Deia jasorik, gau biotz illunean ere, bearrezko tresnak arturik, alkarren leian ontzietara joranki jotzen zuten tokiko arrantzaleak. Erronka bizia! Arraunai gogor eragiñez uretaratzen ziran. Etzegoen denbora galtzerik. Baleak oxpa egin zezaken. Gaiñera, leenengoz arraptzen zuanarena zan balea. Baleari albaitanez urbilduz, ikustekoa izango zan arrantzale gutxibatzen ontzixka, arrikada-tiro barruan, bale purrustari galantari bizitza arpoikadaz erauzi nairik. A ze nolako arrakoa nabaituko zuten beren biotzetan bai tostarkoak eta bai lemazai eta arpolaria balea berbertan begiematean.

Ikusgarria arpolaria. Urbil gakizkion. Brankan naiz txopan zutik, adoia neurtzen ari da, kale egin naiz ez-ta. Beso giartsu indarrez oldarrean jaurti dio arpoia. Sakaildu du izaberea adoiez. Baleak, arnasatsu, bere burua zau-

## BALEAK

ritua oarturik kontraetsian gogor ekiten dio, ur trumilka, arrastaka soka luzez eutsi nai dionari. Balearen isaskadak! A ze nolako zirkiñak ontzi ta ontzilarienak bale zurrunbiltsuaren isaskadaz eriotza saiestu ta ekiditeko. Balea eriosuar azaldu-murgilduz dabil. Okelezko mukulukia nekez, oso nekez eta denboraz menderatu dute arrantzaleak.

### Bale ezizatuaren aberastasuna

Balea illik ere, etzan emen bukatzen arrantzale alegintsu aientzat lana. Ai garraioaren arazoak! Eizakia kaiera eramen bearra zan. Gaur, arrantzaleak aidea txertatu oi diote baleari ondoratu ez dedin lorketan. Len, etzan onelako baliabide ta tekniarik eta zailla egiten zan benetan iz-abere auek legorteraño arrastakatzea. Ba'ziran larogei tonatakoak eta baita eunekoak ere. Arrantzale aien lan etekintsuak –balea arrapaturik eta kaieraturik– egundoko pesta sortarazten zuan kai-errian; sekulako aberastasuna, garaitsaria bait-zan alako arrapaketa. Arrantzale bakoi-tzak bere zirdinkia artzen zuan, norbere irabazki-laiña. Dana zan etekin aprobeaxagarria, baita balearen bizarrak ere. Eta len esan dugunez koipea zan gauzarik beñena. Mingaiñak berak bakarrik koipe asko zeraman. Eta gauza askotarako erabiltzen zan: jateko, argia egiteko, e.a. Gaiñera, toki askotara eramaten zan salgai.

### Izotzetako Tornuan

Azkenik, alabearrak erabakia, urritzen asi zitzaizkigun gure itsas-ertzetatik baleak. Leku lasaiagoetara iges egin zuten. Noiz? Zortzigarren gizamendean? Amargarrean? Adituak diotenes, XV'gn. gizaldian Tornua'ri ikusten ditugu arrantzan eta baita zenbait erri oroigarritsuk euskal izenez bataiatzen ere: Etxaide-portu, Baratxoa, e.a. Arrantzale aien ibillerak eta joanerak! Zenbait egitsari aundi ez ote zaizkigu betiko ixilpean gorde eta galdu! Aintza gizon bulartsu aiei!

Baleak, ordea, erri danak irrikatzen zituzten: inglesak, olandarrak... Eta burrukak sortu ziran. Au dala-ta asko galdu zan bale-arrantza.

Dakigunez, 1.580 gn. urtean berreuntsu bale-ontzi irten ziran Donosti'tik eta Pasaiti'k. Geroago, 1.718'garrean, berriz, etzan bakar bat atera.

Balea bakaillua ugari aurkitu zuten euskal arrantzaleak. Eta auen arrantza asi zan, auen legorketa ta gaziketata.

Edeslari batek esaten digu, XVIII'gn. mendeantsu, arrai aundien arrantza urritzen asi zanean, kai-errietako jendea ere urritzen asi zala eta arrantzale-sendien bizibide zailtzen eta gogortzen. Euskaldunen zer-izana, itsasozaletasuna, ordea, enda-katean estun edo katebegi gerez ez da galdu, naiz-eta jardunbidez exkaxtu, eta ez da beñere galduko.

### Egaña'tar Gotzon

\* \* \*

#### SANTUA

Gizon santu santua beren lanetan dabil egunero pozez, goizer, askar, doa solo eder maitera lan eginbearrez.

Lenen, ate aurean aitaren egiñagaz egia maite dau, ez da lurtar bakarrik, zerutar bizitza lanez lortu nai dau.

Goizeko lan joria benetan da ederra eguzkiz landua, ene lur maitegarri, zure ontasunagaz agertu frutua.

#### GAITZ GUZTIETATIK

Lurtar giza bizia zerura adi dago goizer bizian, lurra eder dalarik miñez josita dago bere zentzunian.

Gizonaren bizia aundiagorako da bere sormenian. burua ta biotza ezin dira asetu lurraren gaiñian.

Aita guztiz onenak beragaz biziteko sortu dau gizona, utsak menperatu ta ona egiñagaz lortu atsedena.

#### OTOITZA

Bizitz labur onetan bearrezko gauzea laguntasuna da, laguntzak osotzen dau bear izan estuan gizonen bizia.

Gizonen izatea lurrez goitik dago edertasunean, laguntza aundiagoa bear dau sinismenak lurraren aurean.

Otoi bearrezkoa egiten dau gizonak zerura begira, ta Aitarik onenak laguntzen dau zerutik dei eskabidera.

#### SALBAMENA

Egun zoragarria benetan, izango da salbamen eguna, agur neke guztiei, agur lur maiteari biotzez eginda.

Zeru bizitz da eder ainferuzko lirioz dana apainduta, bake ta maitasunez oso osoan dago guztiz orniduta.

Betirako argia agertzen dau zeruak zuzentasunian, maitasun zintzoenak alkartzen ditu danak zorion aurriak.

**Paulin**



## ERRUSIARRAK GUTAZ DIÑOENA

Ona emen “Sobietar Entziklopedi-Iztegi”ko idatz-zati batzuk euskeralduak, jakingarri izan daitezkan. Argitalpena 1989’gn. Urtekoa doze; beioakizue euskeralpena:

**“BASKI (bertakoak erabillitako izena-euskaldunak\*)**, Espāni’n (800.000 biztanle) ta Prantzi’n (130.000 dan erria. Ego Ameriketako (eurak “Latiñ-Ameriketa” darabile) laterri batzuetan be bizi dira; beraz, danera 1.090.000 euskaldun inguru (1987’gn. urteko zertzeladen arabera). Bertako izkuntza euskerea dabe. Uzkuertz edo erlejiñoz, katoliko izaki.

**“EUSKALERRIA (Baskoni, Euzkadi) (gatzeleraz “Vascongadas” – eurak ipinten daben lez):** Ipar Espāni’n dan autonomiadun edesti-luiki edo lurraldea, Bizkai’tar Izparnean (golkoan). 7.300 milla aneurkin lau (km<sup>2</sup>). Biztanledia: 2.200.000 biztanle, geienak euskotarrak. (*itzultzallearen oarra: emen adierazgarria da ikustea, bertan iztegi gilleak euskal jatorrikoak eta ez diranak bereizten dabezala euskotarr/Euskalerrri’ko, Euskalerrri’n bizi leitekean edozeiñengandik bereizten dabe beraz, Ego Euskadin zenbat bizi diran eta iztegi gilleak euskotarren kopurua adierazoten dabenean*) Uririk garrantzitsuena: Bilbao. Erkiak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa.

(...) euskotarrak ziran lurralde orren biztanle, izenez (nominalmente) Erroma’n mende izan ziran. Bisigotuen jaurkintza aldian, arabiarak Auñamendi’tar Erdi Ugartearen zirala, euzkoen lurralde-zatirik aundiena azke geratu zan; Berjabekintzaren baluarte modura ageri da; 11’gn. gizalditik asita 15’gn. gizaldira arte euskaldunen jauntxo-agintaritzak (Naparroa’ren agintepean, gero Gatzela’koaren pean); 15 gn. eunki bukaeratik 16’gn. eko asikerara Espāni’tar jaurkintza batuan arte artu eben, 1876’gn. urtera arte autonomi zerbait gordez.

Erri-frentearen gurendaren ostean, 1936’gn. urtean autonomidun eskualdea, Euzkadi eritxona. Erkala edo Errepublikala galdu zala, Euzkadi’ri autonomia. 1978’ko Oin-Legeari jarraiki, Ego Euskadi’k (*itzultzallearen oarra: errusieraz “euskaldunen lateria” diño*) bein-beiñeko autonomia jaso eban, 1980ko urtarrillaren leenen goa ezker bein-betikoa izango zana.

**EUSKERA (baskii –baskii oguzita–):** Euskaldunen berbetea. Euskadi’ko (*euskarazlearen oarra: eurak “Euskadi/Euskalerrria aitatuta, bakarrik ego Euskalerrri’z diñardue; Ipar Euskalerrria euskaldunak erri lez azaltzean bakarrik darabile*) Agintezko izkuntza da, espāñeragaz batera.

## IZOTZA EUSKERAZ

Baditugu euskeraz erederazko “hielo” adierazteko itz erruz; aitatu ditzadan, pixkanaka-pixkanaka.

Oso zabaldua degu *izotz* itza. Itxurak diranez, itz orrek oso jatorri zaarra du, izan ere *iz* itz-zuztar ori ainbatetan “itxaso” esan nai ba-du, ala nola: izurde (itxasoko zarrri edo urdea), izparren (golfo), izgora (maria-gora), izpera (maria-beera), Izaro (ugartea), e.a. Beraz, izotza, ormatutako ura degu. Ikusi dezagun Umandi’k Asmo Iztegian nola zeazten duan: “*IZOTZ (izena): Otzagatik gorputz sendar eta leyarrezkoaz ura biurtuta*”. Itz au euskalki guzietakoek iñolako zailtasunik gabe ulertu dezatekela derizkiot.

Gipuzko’n bertan itz ori oso aixa ulertzen degun arren, *jela* itza barra-barra erabilli oi degu; azken au lateratik datorrela uste genezake; ortaz, ez dirudi “izotz” itza bezin zarra izan ditekenik. Umandi’k itz au zeazterakoan, “izotz” itz sarrerara garamazki. Bizkaia’n ez det “jela” erabiltzen dutenik ute; Ipar Euzkadi’ri dagokionez, Pierre Lhande’re iztegian begiratzen ba-degu, ez degu olako itzik arkituko, ta Bidaso’z bestaldeko euskeraz dan iztegi-ri osoenetakoa degu. Naparro’n ere nekez entungo degu “jela” itza.

Leitza aldean berriz beste euskalkitan entzun ez dedan *kolla* itz berezi ta polita erabiltzen dute. Belarrira oso ondo ematen du, ta guziz berezko itza dalakoan nago, auzo izkuntzekin lotura naasturik ez duana. Orra ba, itz goxo ori ikasi dezagun eta zabaldu ta erabiltzen alegindu gaitezen, orren ez-ezaguna izan ez dedin.

Bizkaia’n, *lei* ta *horma* itzak ere erabiltzen dira. “Lei” itzak bi esan-nai izan ditzake; alde batetik, izotza, jela. Bestetik, batzuek erderazko “helada” esan-naia damaiote. “Lei+tza= leitza, lei-multzoa, leia edo kolla pillatzen dan tokia; leizea, leitzazuloa ere arkaitz-zuloari esaten zaio. Bear ba’da, iñoiz leitza “iglu” modukoren bat izan ziteken, gizakiak bizi ziran izotzezko etxeak. “Orma” itzak ere pareta ta izotza esan-naiak izan lezazke. Zenbaitek itz au laterazko jatorria duala dio. Edozeiñetara, iparraldeko senideek ere erabiltzen dute. Ainbat abizenetan ere ikusten degu, ots: Ormaetxea, Ormaza, Ormazar, Ormazabal... Eskualde oietan erabiltzen dan beste itz jakingarri bat aurkeztuko dizutet, ditun aldaketa ta guzi: karri, karro, karroi, karroin, karruin. Irakurri izan det, “arri” itzetik etorri zitekeala, aurreko K izki orrek utsunea adierazten duala; arri barru-utsa izango litzake beraz; ori noski ez dago ain errez eta zeatz tajutzerik. Mujika’tar Imanol’ek onoko itz-sornun au damaio:

Asier Etxaburua

## 22.– TXOMIN AGIRRE (1864-1920)

Ondarroa'ko semea. Biotz onekoa ta buru argikoa. Ogei urtekoa zala Gasteiz'ko seminaria joan eta ikasketa laburrean filosofia ta teologia egin ebazan. Nota onak atera eta odol gorriko Azkue izan eban lagun. Bera odol zurikoa zan.

Lenengo mezea Urkiola'n emon eban eta laster izendatu eban Zumaia'ko lekaiame karmeldarren kapellau eta antxe igaro eban bizitza osoa. Erririk eri be ibiltzen zan itzaldiak egiten.

Euskerea ondo ekian umetatik eta gero gorengo euskalzaleen lagun egin zan.

1918n. urtean Euskaltzaindia sortu zanean, an egoan bera be eta euskera-saillaren arduradun egin eban.

Idazle ugaria dogu. Bere lanik urtenenak : 1) Auñamendi'ko lorea: Iparraldeko arazoai buruz, elebarri abertzalea, frankoen aurka, (ez Nabarro Villoslada'ren bidean). 2) Kresala: Bizkaieraz elebarririk onena, irakurri kitolis eta ekaitza, ederra benetan!. 3) Garoa: Oituzako euskal elebarria gipuzkoeraz, kresala baiño ohea.

Jose M<sup>a</sup> Pereda'k, oituren arloan, elebarri bi idatzi ebazan, Peñas Arriba mendikoa eta Sotileza itxasokoa. Antzera gure Txomin'ek be, Kresala itxasokoa eta Garoa basokoa..

IRITZIAK: Orixe'k: "Euskera garbia eta ugaria du". P. Lhande'k: "Garoa da gure Txomin'ek idatzi duan libururik ederrena". Baiña Kuschwich'ek idazle onen lanai "vuelos gallinaceos" diñotse.

Olerkietara be sartu zan Txomin. Ona emen bat, bere euskerea aztertu al izateko

### 23.– Toribio Alzaga (1861-1941)

Goazen antzerkigilleak aztertzer. Ba-daukagu Iparraldeko pastoralen altxor aundiaren, Europa'ko altxor aundiena erdiaroen danaren albistea, baita Pedro Ignazio Barrutia aramaioarrarena be, bere antzerki-lana "Gabonetako Ikusikizuna" dala. Baiña antzerki-lanak aurrera doaz gure elertian. Ona emen antzerkigille ospetsu batzuren izenak: Soroa, Artola, Azkarate, Uranga, Iraola, Alzaga, Gorostidi, Mokoroa, Zapirain, Barriola ta beste asko.

Toribio Alzaga donostiarra dogu eta karlostarren guda zala-ta Ziburu erritxura erbesteratu bear izan eban. 13 urtekoa zala antxe asi zan Soroa'ren agindupean antzerkiak egiten: Lenengoa "Aterako gara" izan zan (1888), saritua eta sarritan antzeztua, 12 bider argitaratua. Beste 30 antzezlan idatzi ebazan.

Gero Donosti'ra etorri zan eta gazteakaz eleizgiroan jarraitu eban lan ori. Operak be egin ebazan.

ERITZIAK: Atzerkigillerik onena dala diño gaur ago batez.

Orixe'k: "Euskal teatroa Alzaga'k oial-zapietatik atera eban".

Mitxelena'k: "Antzerki jator zerrenda eder galanta" aitatzten dau eta komeri atsegiñak be bai.

### GERNIKA'RI

Nire biotzak zuretzako dau  
bere tokitik onena;  
mundu guztiko errietatik,  
Gernika, zaitut maitena  
eta zelan ez, baldin ba'zara  
erririk euskaldunena  
ta aman aotik kantu gozuan  
ikasi neban izena.

Nik ez nekian nun zan Gernika,  
ume nintzala oraindik,  
ta irudimenez ikusten neban  
(ameslari bat izanik)  
andre zabal on baten gisara,  
ibar berdean jarririk  
uri eder ta zuri garbi bat  
Aritzak kerizpeturik.

Gaur ikusten dot Gernika'rentzat  
esperantzaren argia;  
eskol'onetan barriz barrero  
ereingo da birtutia.  
Ta itxaro geinke Jaungoikuagan  
egun obak ikustia.  
Miraritsua fedia da-ta,  
emen ba-dago fedia.

**Olazar'tar Martin'ek**

# FORTUNATO UNZUETAN ETA BEGOÑA'KO BITXIAK

Begoña'ko parroko-orde zan Fortunato Unzueta abadeak eskutitz luze bat egin eutson Mateo Mugika Gas-teiz'ko Gotzainari Fraskatti'ra eta gutun orretan argi ta garbi diñotso zer jazo zan Begoña'ko Amaren bitxiakaz, guda urreratu zanean.

Labur-labur azalduko doguz eskutitz orretan agertzen diran jakingarriak.

Astigarraga'tar Bernardo zan Begoña'ko parrokoa guda asi zanean eta arduratuta egoan Begoña'ko Ama'ren irudia, koroiak eta bitxiak zelan zaindu asmatzen ez ebal. Antxiñatik egozan Bizkai'ko Bankuan, baiña ez egozala ondo babestuta uste eban.

Eliodoro de la Torre zan Eusko Jaurlaritza'ko Ogasun-Sail-Burua eta onek arazoa jakin ebanean gogoz artu eban eta urtenbiderak aurkitzen algindu be bai.

Laguntza orregaz baretu zan apur bat D.Bernardo baiña parrokotza itzi egin bear izan eban eta ille batzutarako D.Fortunato Unzueta geratu zan parrokiko ardura-dun eta onegan eukan uste osoa parrokoak. Agindu au emon eutson: Bitxiak ondo gordeteko eta iñori ez esateko non dagozan.

Zalantza aundiak izan ebezan, baiña azkenean auxe erabagi eban: Toulouse'ko banku batera eroatea Bizkai'ko Bankuan egozan bitxiak, irudia eta koroiak lengo lekuan itzita. Erabagi au artzeko batuta, oneik izenpetu eban agiria: Fortunato Unzueta, Eliodoro de la Torre, Luzio Aretxabaleta, N. Hernandez eta Dabid Ilarduia. Batzarrera ekarri ebazan bitxiak Bankuak, inbentarioa egin zan eta bostak izenpetu eban.

D.Eliodoro arduratu zan bitxiak Toulouse'ra eroateko. Onek Yanguas eritxon pilotoari emon eutsozan eta onek eroan ebazan, beste bitxi batzukaz batera, baiña iñok ez eutson esan kutxa aretan zer joian, balio aundikoa zala baiño ez.

Eldu zan Yanguas Toulouse'ra eta bosten izenean Frantze'n itzi ezin zeitekealako, Eliodoro etorri-artean bankuan Yanguas'en izenean geratu zan kutxa.

Eliodoro Toulouse'ra joateko alegiñak egiten ebillan bitxiak bear dan izenagaz ipinteko, baiña luzatu egin jakon joatea.

Or bitartean Yanguas bere egazkiñagaz Frantze'tik Bilbao'ra etorrela, Zarautz'en lurreratzeraz beartu eban eta an Franco'tarrak arrapau eban egazkiñean etorren Alfredo Espinosa Osasun Sailburua eta il egin eban.

Gaur argi dago Yanguas ori etoia zala.

Yanguas onegaz Toulouse'ra urreratu zan Joakin Goioaga eta biak bat eginda, bitxiak España'ra ekarri ebezan.

Ekarte orretan ez eban izan zer-ikusirik ez Eusko Jaur-laritzak eta ez Euskal Errepublikeak. Iñok ez ekian ezetxu be, Eliodoro de la Torre'k eta Fortunato Unzueta'k izan ezik. Gero sartu zan orra Yanguas piloto faksista etoia. Yanguas geratzen da zalantzan, baiña beste biak erruba-koak zirala argi dago.

Bitxiak Bilbao'ra eldu ziranean, beste era batera ager-tu eban arazoa faksistak. Dana bideratu eban dagonilla-ren 15n. egunean egin zan eleizkizuna egiteko.

"La Gaceta del Norte" izparringian jakingarriak one-lan agertu ziran:

1.- Illearen 15n. egunean 12'etan biurtuko jakoz Begoña'ko Ama'ri, gorriak eta separatistak ostu eutsozan bitxiak. Lenengo Aita Santuaren Ordezko dan Antoniutti monseñorak bedekatu daz.

2.- Franco Gudalburu Nagusiaren emazate lirain eta zintzoak emongo dautsoz Begoña'ko Ama'ri Euzkadiko Gobernuak ostutako bitxiak, Joakin Goioaga'k zurtasenez erbestetik ekarrita.

3.- Bilbao'ko Udalak Carmen Polo de Franco'ri eskaria egin dautso erriaren izenean, bitxiak biurtzen etorteko.

4.- Franco Buruzagiaren emazteak biurtu ebazan ostutako bitxiak jentetza aundiaren aurrean.

5.- Eleizkizun orretan Aita Santuaren Ordezko dan Antoniutti monseñorak ipiñiko daz koroaiak Amaren et Semearen buruetan. Egin eban berbaldia, beste batzuren artean, lotsagarria izan zan.

6.- Dr.Areiltza Bilbao'ko Alkateak egin eban beste berbaldi lotsagarri bat.

Geroago D. Fortunato'k izan eban aukerea D.Pedro Mentxaka ta beste batzuren aurrean Antoniutti orreri zelan iruzurtu eban agertzeko, baiña au izan zan Anto-niutti baragarriaren erantzuna: Toulouse'tik aurrera bitxiak ostuta egozan eta ori naikoa da nik esan dodana esateko.

Ikusten da zelako aundikeriagaz eta maltzurkeriagaz jokatu eban gudea egin ebanak. Besteak isilik egon bear!

**Olazar'tar Martin'ek**

**EUSKERAZALEAK**

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

# BBK

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilerro,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**